



FR.103-E

Aurkezpen-erregistroa

Sarrera-erregistroa

BAIMENA, DIE SISTEMAREN ETA JAKINARAZPEN TELEMATIKOEN EREMUAN AFILIATU (A.Z.) BATEN ORDEZKARI GISA JARDUTEKO*

* Baimenari dagokion IFZk esleitu beharreko A.Z.renarekin bat ez datorrenean baino ez. Baimenari dagokion IFZk esleitu beharreko A.Z.renarekin bat datorrenean, berriz, FR.104 formularioa bete beharko da.

1. ORDEZKATU BEHARREKO AFILIATUAREN DATUAK

IZEN-DEITURAK		AFILIAZIO-ZENBAKIA	
<input type="text"/>		<input type="text"/>	
IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA (I.F.Z.)			
<input type="text"/>			
Harremanetarako datuak			
HELBIDE ELEKTRONIKO*		TELEFONO MUGIKORRA*	
<input type="text"/>		<input type="text"/>	
* Eremu hau DOren eta afiliatuaren arteko berriemateetarako erabiliko da.			
Ordezkaritzaren datuak (hala denean)			
AFILIATUAREN ORDEZKARIAREN IZEN-DEITURAK		IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA (I.F.Z.)	
<input type="text"/>		<input type="text"/>	

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 5. artikuluan ezarririk dauden xedapen eta baldintzen arabera, ondoko hauetarako

BAIMENA eman zaie zenbakia duen GSDOren baimenaren erabiltzaileei:

- DIE Sistema baliatzeko, Sistema hau araupetu duen arautegian jasotzen diren izapideei dagokienez
- DIE sistemaren bidez IFZ honekin inskribatzen diren norbanako enpresaburuaren KKKak baimenari esleitzeko

Baldin eta esleigabetzeko eskatu den Afiliazio-Zenbakiak DIE Sistemari sartu beharrik izateko Sistema horri bere borondatez atxikitzeko eskatzen bada, martxoaren 26ko ESS/485/2013 Aginduaren 3.2.b artikuluan xedaturik dagoenarekin bat etorritik, Gizarte Segurantzaren administrazioak bere eskumenak egikaritzean igortzen dituen jakinarazpenak eta berriemateak bitarteko elektronikoen bidez jaso beharko ditu, harik eta arestion aipatu Sistema horren barruan iraun arte.

Arestion aipatu den Aginduaren 3.2. artikuluan jasotzen diren kasuetan, jakinarazpen eta berriemate elektronikokoak bai berauek jaso behar dituen subjektu arduradunaren eta bai DIE Sistemari subjektu arduradun horren Kotizazio Kontuaren Kodearen kudeaketa une bakoitzean esleiturik duen pertsona baimenduaren edo, hala ezean, Norberaren Konturako Langileen edo Sistema horretan sartu behar duten Autonomoen Gizarte Segurantzako zenbakia esleiturik duen pertsona baimenduaren eskura jarriko dira, sistema hori araupetu duen martxoaren 26ko ESS/484/2013 Aginduan ezarririk dagoenaren arabera. Salbuespen gisa, subjektu arduradunek, beraiei igortzen zaizkien jakinarazpen eta berriemate elektronikokoak euren eskura soil-soilik jartzea edo, baita, ordezkari gisa egiletsi dioten gainerako pertsona baten eskura jartzea ere aukeratu ahal izango dute (martxoaren 26ko ESS/484/2013 Aginduaren 4. artikulua).

Baldin eta gaur egun afiliatu hori beste DIE baimen baten bidez kudeatzen bada, honako formularioa betetzeak hark bere **A.Z.** aipatu baimen horretatik **HUTSALTZEA** eragiten du.

2. BAIMENAREN DATUAK

SOZIALTEAREN IZENA/IZEN-DEITURAK	IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA (I.F.Z.)
<input type="text"/>	<input type="text"/>

ESKABIDEA EGIN ZAION ORGANO. G.S.D.O.REN PROBINTZI ZUZENDARITZA:

AFILIATUA EDO ORDEZKARIA	
Tokia:	Data:
SINADURA:	
IZEN-DEITURAK: _____	

ERABILTZAILE NAGUSIA EDO BAIMENAREN ORDEZKARIA	
Tokia:	Data:
SINADURA:	
IZEN-DEITURAK: _____	

AURKEZTU BEHAR DUZUN AGIRI-SORTA

- Afiliatuaren eta, ordezkariaren kasuan, eskabidea egiten duen pertsonaren ordezkariaren egiaztagiria, bai eta haren identifikazio agiri ere.

DATUEN BABESA.- Norberaren Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko (E.A.O., 1999ko abenduaren 14koa) 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusi diren ondoreetarako, inprimaki honetan jartzen dituzun datuak Afiliazio Fitxategi Nagusian sartuko direla jakinarazten dizugu. Fitxategi hori 1999ko martxoaren 26ko aginduaren bitartez aldarazi zen 1994ko uztailaren 27ko aginduaren bidez araupetu zen. Aipatu datuei dagokienez, datuok atzitu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubidea erabili ahal izango duzu, 15/1999 Lege Organikoan adierazten denaren arabera.

Datu hauen berri emateak enpresaburuak Gizarte Segurantzaren informazio-berriemateak onartzen dituela esan nahi du.